

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, TRAPAGARANGO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den irailaren 26an aho batez onartu zuten Trapagarango Udalaren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari buruzkoa.

2017ko **Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz unean uneko zenbait doiketa azaleratu diren, Diruzaintza Geldikina 733 mila euroan murriztuko luketenak. Gainera, Kontu Orokorrak ez du etorkizuneko ekitaldietako zenbait inbertsio-konpromisori eta gasturi buruzko informaziorik jasotzen.

Bestalde, txostenak jasotzen du badirela zalantza egoera batzuk, batik bat sarrera fiskaletan, eta ezin izan da ondoriorik eman Udalaren Balantzeko Aktibo ez arrunteko saldoei dagokienez.

HKEEk aztertu du fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorreko finantza egoera eta ondorioztatu du 2017an Geldikina izan dela inbertsioak finantzatzeko iturri nagusia, kapitalezko diru-laguntza eta aktiboen salmentarekin batera; Geldikina ekitaldi itxieran 3,1 milioi euro izan da.

Honezaz guztiaz gain, Udalaren Kontu Hartzaitzak jaulkitako txostenari jarraikiz, 2017an bete dira aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak eta gastuaren araua.

Udalak zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz unean uneko akatsak azaleratu diren administrazioko kontratazioaren atalean: hornidura bat eta bost zerbitzu prozedurarik gabe kontratatu dira; kontratu bat obrako jo da hornidurakoa izanik; zerbitzu kontratu bat zatikatu da; kontratu bati amaitu ostean segida eman zaio; eta erosketak egin dira aurrekontuko krediturik gabe).